

07 A ZER PLAN ONA!

Denoi gustatzen zaigu aisialdiaz disfrutatzea, eta askotan hitz egiten dugu besteekin gure plan eta asmoei buruz. Baina, plan horiek egin baino lehen, dena ondo antolatu behar izaten dugu: informazioa eskatu, eman eta erreserbak egin behar izaten ditugu. Aisialdian izan ditugun esperientziak ere sarritan komentatzen ditugu ingurukoekin, besteak animatzeko edo antzeko planak antolatzen laguntzeko. Unitate honetan, hori dena euskaraz egiten lagunduko dizugu. Prest al zaude?

Disfrutar del tiempo libre es algo que a todos nos gusta, y es habitual que hablemos de planes e intenciones de ocio con los que nos rodean. Pero, antes de hacer planes, es importante pedir y dar información, así como hacer reservas. También es común comentar con los demás las experiencias vividas en el tiempo libre, para animarles a realizar planes similares o para ayudarles a organizarlos. En esta unidad te vamos a ayudar a hacer todo esto en euskera. ¿Estás preparado?

Unitatearen **helburu nagusiak**

Aisialdiko asmoei eta planei buruz hitz egitea. Hablar de intenciones y proyectos para el tiempo libre.

Hainbat plan egiteko informazioa ematea, eskatzea eta erreserbak egitea. Dar y pedir información y hacer reservas para hacer planes.

Aisialdiko esperientzien berri ematea. Dar a conocer experiencias de tiempo libre.

Unitatearen **atalak**

Lehenengo atala

ATARIAN Mendi-espediziora joan den lagun taldeak zer egin duen jakingo duzu.

Bigarren atala

A Lehenik, jendeak aisialdiko asmoei eta planei buruz nola hitz egiten duen ikusiko duzu.

B Segidan, pertsona batzuek, hainbat plan egiteko, informazioa nola ematen eta eskatzen duten eta erreserbak nola egiten dituzten ikusiko duzu.

C Azkenik, jendeak aisialdiko esperientzien berri nola ematen duen ikusiko duzu.

Hirugarren atala

ERABILI Atal honetan, zu izango zara protagonista, eta unitatean zehar landu duzuna praktikatuko eta ebaluatuko duzu.

Laugarren atala

BADAKIZU Bukatzeko, autoebaluazio-fitxa beteko duzu. Horrekin batera, bideo-esketxa ikusteko aukera izango duzu.



07 ATARIAN

AZER PLAN ONAI

Unitatea hasteko, mendi-espediziora joan den lagun taldeak zer egin duen jakingo dugu.

MENDI-ESPEDIZIOA

German lagunekin joan da mendi-espedizio batera. Oraindik ez dira mendi aldera atera, eta herriko mendi-taldekoek Germani deitu diote, espedizioaren xehetasunak ezagutzeko.

1 2 Escucha y completa la conversación. Entzun elkarrizketa eta osatu.

etzi arte
bihar arratsaldean

hurrengo egunean
datorren astean

egun gutxi barru
etxidamu



—Egun on, German. Zer moduz zaudete? Dena prest lehenengo kanpamentura abiatzeko?

—Bai. Eguraldiak hobera egingo duela esan dute, eta, nire ustez, (a) *bihar arratsaldean*, abiatu ahal izango gara.

—Noiz arte egon beharko duzue han girora moldatzeko?

—Gutxienez, bi egun egon beharko dugu girora moldatzeko. (b) atseden hartu beharko dugu, eta bi egunetan ezin izango gara kanpamentutik mugitu. (c) odol-analisiak egin beharko ditugu. Ondo baldin badaude, (d) aurrera egin ahal izango dugu.

—Zenbat denbora beharko duzue bigarren kanpamentura iristeko?

—Elurrik egiten ez badu, (e) iritsiko gara, eta bigarren kanpamentutik berriz hitz egin ahal izango dugu zuekin, baina (f) eguraldi txarra egingo duela esan digute...

—Zer egingo duzue, orduan?

—Eguraldi txarra egiten badu, ezin izango gara abiatu, han itxaron beharko dugu.

—Oso ondo. Ondo joan, eta, ahal baduzue, deitu edo idatzi.

—Ados, eskerrik asko.



Mendi-taldekoek berehala idatzi dute jaso duten informazioa euren web-orrialdean.

2 Lee y completa la información que han colgado en la página web. Irakurri eta osatu web-orrialdean idatzi duten informazioa.

DENBORA-ADIERAZLEAK MARCADORES TEMPORALES

bihar: mañana

datorren astean: la semana que viene

egun gutxi barru: dentro de pocos días

etzi: pasado mañana

etxidamu: el día siguiente a pasado mañana

hurrengo egunean: al día siguiente

Lan-koademoa: 9. or.

HIZTEGIA

aldera (mendi aldera): hacia el monte

abiatu: partir

berriz: de nuevo, otra vez

elkarte: asociación, sociedad

girora moldatu: aclimatarse

gutxienez: por lo menos, como mínimo

ikasturte: curso, año académico/escolar

itxaron: esperar

odol-analisi: análisis de sangre

BEHAR IZANGO DUT, AHAL IZANGO DUT, EZIN IZANGO DUT TENDR QUE/NECESITAR, PODR, NO PODR

Para expresar una acción futura con los verbos **behar izan**, **ahal izan** y **ezin izan**, se añade la partícula **-ko/-go** al verbo **izan** o al nombre.

BAIEZKO ESALDIAK:

Bi egun egon **behar izango/beharko dugu** kanpamentuan.

Tendremos que estar dos días en el campamento.

Lan-koademoa: 14. or.

Eguraldi ona egiten badu, mendira joan **ahal izango/ahalko gara**.

Si hace buen tiempo, podremos ir al monte.

Mendian paisaiatzat disfrutatu **ahal izango/ahalko dugu**.

En el monte podremos disfrutar del paisaje.

EZEZKO ESALDIAK:

Ez dugu oso goiz atera **behar izango/beharko**.

No tendremos que salir muy pronto.

Elurra egiten badu, **ezin izango/ezingo dugu** txangoa egin.

Si nieva, no podremos hacer la excursión.

Bihar **ezin izango/ezingo gara** gailurreraino iritsi.

Mañana no podremos llegar hasta la cima.

HIZTEGIA

berehala: enseguida
espedizioko kide: integrante de la expedición
jakinarazi: hacer saber

BEHAR IZAN DUT, AHAL
IZAN DUT, EZIN IZAN DUT
HE TENIDO QUE/HE
NECESITADO, HE PODIDO,
NO HE PODIDO

Para expresar una acción que ya ha sucedido con los verbos **behar izan**, **ahal izan** y **ezin izan**, no es necesario añadir ninguna partícula.

BAIEZKO ESALDIAK:

Kanpoan lo egin **behar izan dugu**.
Hemos tenido que dormir fuera.

Irratia konpondu **ahal izan dugu**.
Hemos podido arreglar la radio.

Eguraldi txarra egin arren, azken kanpamenturaino **iritsi ahal izan gara.**
A pesar del mal tiempo, hemos podido llegar hasta el ltimo campamento.

EZEZKO ESALDIAK:

Ez dugu botikarik hartu **behar** izan.
*No hemos tenido que tomar
medicamentos.*

Ezin izan gara goiz atera.
No hemos podido salir pronto.

Ezin izan dugu etxekoekin hitz egin.
No hemos podido hablar con los de casa.

Lan-koaderno: 14. or.

HIZTEGIA

bart: anoche
behintzat: por lo menos
berriro: de nuevo
botaka egin: vomitar
eguraldi-iragarpen: parte meteorológico
elkarrekin: juntos, -as
elur-jausi: alud, avalancha
hobera egin: mejorar
indartsu: fuerte
kanpin-denda: tienda de campaña
oraindik: todavía
saiatu: intentar
zorabio: mareo
zorionez: afortunadamente

Azken berriak Katmandutik. Gaur goizean, Germanekin, Katmanduko espedizioko kidearekin, hitz egin dugu. Arazorik ez badago, bihar arratsaldean lehenengo kanpamentura iritsiko dira baina han, gutxienez, bi egun (egon behar izan) *egon beharko/behar izango* dugu, girora moldatzeko. Etzi arte atsedean (hartu behar izan), eta bi egunetan (mugitu ezin izan) kanpamentutik. Etzidamu, odol-analisiak (egin behar izan) Ondo baldin badaude, hurrengo egunean, aurrera (egin ahal izan) Elurrik egiten ez badu, egun gutxi barru iritsiko dira bigarren kanpamentura, eta berriz (hitz egin ahal izan) gurekin, baina datorren astean eguraldi txarra egingo duela esan diete, eta, agian, (abiatu ezin izan) Berriak iristen direnean, jakinaraziko dizkizuegu.

German eta lagunak lehenengo kanpamentura iritsi dira, baina planak ez zaizkie ondo at-
era, eta mendi-taldekoei idatzi diete kontatzeko.

3  Lee y completa el mensaje que han escrito desde el primer campamento. Irakurri eta osatu lehenengo kanpamentutik iritsi zaien mezua.

- ezin izan dugu azken eguraldi-partea entzun
- botikak hartu behar izan dituzte
- konpondu ahal izan dugu
- ezin izan gara oso urrutira joan
- lo egin behar izan dugu

Kaixo, denoi.

Zer moduz zabiltzate? Guri planak ez zaizkigu oso ondo atera, baina ondo gaude. Oraindik lehenengo kanpamentuan gaude. Bidea oso gogorra izan da, eta asko kostatu zaigu hona iristea, baina, azkenean, sherpek lagundu digute, eta denok ondo iritsi gara.

Batzuei girora moldatzea kostatu zaie. Zorabioak izan dituzte, eta bota-ka ez egiteko, (a) 2, baina badirudi orain hobeto daudela. Bart, ez dugu oso ondo lo egin, kanpin-denda batzuk busti zaizkigu, eta denok elkarrekin (b) ____.

Maite eta biok indartsu gabilza, eta, gaur goizean, bidea nola da- goen ikustera joan gara, baina elur-jausia izan da, eta (c) ____.

Gaur telefo- noak ez dauka seinalerik, eta ordenagailuarekin arazoak izan ditugu, baina, zorienez, gaur goizean ordenagailua, (d) ____, zuekin eta familiakoekin kom- unikatzeko. Bihar eguraldiak hobera egingo duela ematen du, baina irratia ez dabil oso ondo, eta (e) ____.

Bihar eguraldi ona egiten badu, igotzen saia- tuko gara. Ahal badugu, bihar berriro idatziko dizuegu. Laster arte.

Mendi-taldekoak azkarregi irakurri du mezua, eta lagunei kontatu dienean, nahasi egin da.

4  Lee lo que ha contado, y di si es verdadero o falso. Corrige las frases falsas. Irakurri kontatu duena, eta esan egia ala gezurra den. Zuzendu gezurra diren esaldiak.

E G

- a. Batzuek zorabioak izan dituzte, baina ez dute botaka ez egiteko botikarik hartu behar izan. ☐ ☒
- Gezurra. Batzuek zorabioak izan dituzte, eta botaka ez egiteko botikak hartu behar izan dituzte.*
- b. Kanpin-denda batzuk busti zaizkie, eta denek elkarrekin lo egin behar izan dute. ☐ ☐

c. Maite eta German, gaur goizean, bidea nola dagoen ikustera joan dira, eta urrutira joan ahal izan dira.

□ □

d. Gaur goizean, ezin izan dute ordenagailua konpondu.

□ □

e. Irratia ondo dabil, eta eguraldi-partea entzun ahal izan dute.

□ □

Azkenean, Germanek eta lagunek oztopo guztiak gainditu dituzte, eta, orain, etapa bakarra geratzen zaie gailurrera iristeko. Mendi-elkartekoek beraiekin hitz egin dute, animoak emateko.

HIZTEGIA

aurrera egin: avanzar, seguir adelante

berehala: enseguida, inmediatamente

gailur: cima

ilundu: oscurecer

laino: niebla

5



Lee y completa la conversación que han mantenido. Para ello, elige la opción correcta. Irakurri eta osatu izan duten elkarrizketa. Horretarako, aukeratu erantzun egokia.



—Kaixo, kuadrilla. Mendi gailurreraino iristeko prest?

—Bai. Bihar gure ametsa (1) **a**, gailurrera iristea espero dugu.

—Zer moduz zaudete?

—Nekatuta gabilta. Orain dela gutxi iritsi gara kanpamentura.

(2) __, iparraldeko bidetik abiatu gara, baina lainoa sartu da, eta buelta eman behar izan dugu; (3) __ aurrera egin. Eguerdian berriro saiatu gara. Beste bide bat (4) __, eta arazorik gabe iritsi gara.

—Biharko zer plan daukazu?

—(5) __ oso goiz jaiki beharko dugu. Horrela, nahiko denbora izango dugu, eta eguerdia baino lehen gailurrean egongo gara. Han (6) __

denbora luzean egon, paisaia pixka bat begiratuko dugu, argazkiak aterako ditugu, eta berehala (7) __, ilundu baino lehen kanpamentura iristeko.

—Primeran. Jaisten zaretenean, lasaiago (8) __, eta den-dena kontatuko diguzue. Zorte on, eta laster arte.

—Bai, hitz egingo dugu.



1. a. **bete ahal izango dugu**
b. bete ahal izan dugu
c. bete ahal izaten dugu

3. a. ezin izango dugu
b. ezin izan dugu
c. ezin izaten dugu

5. a. atzo
b. gaur goizean
c. bihar

7. a. jatsi behar izaten dugu
b. jaitsi behar izango dugu
c. jaitsi behar izan dugu

2. a. bihar
b. gaur goizean
c. etzi

4. a. hartu beharko dugu
b. hartu behar izaten dugu
c. hartu behar izan dugu

6. a. ezin izan gara
b. ezin izango gara
c. ezin izaten gara

8. a. hitz egin ahal izan dugu
b. hitz egin ahal izaten dugu
c. hitz egin ahal izango dugu

gogoratu

Haz una lista de los marcadores de tiempo que han aparecido.

¿Cómo se expresan acciones futuras con frases como *podrá seguir adelante, no podremos movernos, no podrá partir, tendremos que descansar, tendrá que hacerse anécdotas*, etc.?

¿Cómo se expresa una acción que ya ha sucedido con frases como *hemos podido subir al monte, han podido arreglar el ordenador, no hemos podido oír el parte meteorológico, no han podido ir muy lejos, hemos tenido que tomar medicamentos, han tenido que dormir juntos*, etc.?